



■ 3. DOKUMENTUAREN EGITURA

Dokumentua, oraingo honetan, aztertutako alor bakoitzaren deskripzioa ahalik eta modu sakonenean ulertzeko moduan egituratu da. 2003ko Mugikortasunari buruzko Inkestan gertatu zenaz bestela -eta dokumentu hau haren jarraipen sekuentziala da- oraingo honetan EAEn bizi direnen kanpo desplazamenduak hartu dira kontuan eta, gainera, EAetik kanpo bizi direnak ere azterketa barruan sartu dira. Datuak biltzeko prozesuari buruzko aurreko atalean azaldu den bezala, EAerekin mugakide diren inguruetan telefono bidezko inkestak egin dira. Horrek ekarri du aztertuko moduko hainbat kolektiboren presentzia agertu izana. Landuko diren ataletan, aztergai izango den taldearen aipamen espezifikoak egingo da. Jarraian datorren taulan inkestak egiteko prozesuetan sortutako kolektiboak azaltzen dira, euren bizilekuaren eta desplazamendu motaren arabera. Hala, EAE sorburu edo helburu duten desplazamenduak kontuan hartu dira.

Taula 4

Bizilekuaren araberako desplazamenduen banaketa

Sorburua	Helburua	Bizilekua		Guztira
		EAE	EAetik kanpo	
EAE	EAetik kanpo	54.465	43.963	98.429
	EAE	5.961.785	7.915	5.969.700
EAetik kanpo	EAE	71.350	43.690	115.040
	Guztira	6.087.600	95.568	6.183.168

Txostenaren zatirik handiena, hau da, "EAEn bizi direnen Mugikortasunaren Ezaugarri Orokorrak" atala, aipatutako erkidegoan bizi diren pertsonen egindako desplazamenduetan zentratuko da, eta horien artean sorburua edota helburua EAEn bertan izan duten desplazamenduak aztertuko dira. Azterketa alor horrek 6.087.600 desplazamendu biltzen ditu. Lurralde azterketari dagokionean, EAEn bizi diren pertsonen desplazamenduak aztertuko dira, berau Erkidegoko bi lekuen artean egiten denean. Kasu honetan 5.961.785 izan dira.

Aztergai izango den bigarren alorra kanpo harremani dagokiena izango da, hau da, sorburua edo helburua EAetik kanpo dutenena. Azterketa hau egiteko kontuan hartu dira, EAEn bizi direnei egindako elkarrizketak ez ezik, EAetik kanpo bizi diren pertsonen egindakoak ere. Horietatik, 98.429k EAE barruan dute sorburua eta helburua kanpoan, eta beste 115.040k, berriz, alderantziz.

Azkenik, eta mugikortasunaren gaineko azterketa ebolutibo bat egiteko helburuaz, "2003-2007 bilakaera" izeneko atala jorratu da. Horretarako, 2003an aztertutakoaren parekoa den kolektibo bat hartu da kontuan. Hau dela eta, moduen multzoak zertxobait ezberdinak dira kapitulu honetan eta txostenaren zehar erabilitakoak. Ondorioz, zenbakiak ere ez dira guztiz berdinak, konparagarriak gerta daitezten.

3. DOKUMENTUAREN EGITURA

Amaitzeko, ondorioen gaineko atal bat idatzi dugu, non dokumentu osoan deskribatutako ezaugarri nagusiak islatzen diren, eta eranskinera eraman ditugu EAEn bizi diren pertsonen egindako desplazamenduei buruzko taula deskriptibo gehienak, daturik erreferentzialenak batzeko helburuaz, nahiz eta batzuetan datu horiek txostenean zehar agertu.